

# Zainttek

## Zaintza" + "Teknologia"

**Segurtasuna eta erosotasuna eskura: Zure ongizatea zaintzen duen teknologia**

**Zainttek**-en uste dugu segurtasuna eta erosotasuna ezin direla utzi kasualitatearen esku. Horregatik, garatu dugu eskumuturreko teknologiko aurreratu bat, zure eguneroko bizitzan laguntzeko. Gure eskumuturrekoa ez da osagarri arrunta: zure **segurtasun zaindaria eta laguntzailea** da, eguneko 24 orduetan.

Gure pultsera azken teknologiadun **sentsore adimendunekin** hornituta dago. Zure pultsazioak, jarduera fisikoa eta egoera emozionala etengabe monitorizatzen ditu, gorputzaren aldaketei adi egonez. **Zure bihotz-taupadak ezohikoak** badira edo zure estres-maila igo bada, eskumuturrekoak automatikoki abisua emango dizu. Horrez gain, beharrezkoa bada, berehala deituko dio **112** larrialdi-zerbitzuari, zure kokapena eta gorputzaren egoeraren datuak bidaliz, laguntza ahalik eta azkarren iristeko. Hau batez ere pertsona edadetuentzako eta bakarrik bizi diren pertsonentzako dago diseinatuta.

Baina gure eskumuturrekoak ez ditu soilik larrialdiak detektatzen; zure eguneroko erosotasunean ere eragiten du. **Inguruko argia egokitze**ko gai da; argi gehiegi edo gutxiegi dagoenean, argiztapena automatikoki doitu du, beti giro eroso bat mantentzeko. Gainera, gure teknologiak eguraldiaren arabera ere moldatzen du argiztapena, zure etxean edo bulegoan giro atsegina izateko.

Zure segurtasuna bermatzeko, gure erloju-inteligenteak **adierazpen adimentsuak** erabiltzen ditu, zure osasun-datuak modu argian eta zehatzean erakusteko. Aplikazio intuitibo baten bidez, zure jarduera fisikoa, bihotz-maiztasuna eta bestelako osasun-parametroak uneoro kontrolpean izango dituzu. Horrela, zure ongizatearen jarraipena egitea inoiz baino errazagoa izango da.

**Zainttek**-ren eskumuturrekoa eramaten duzun bakoitzean, teknologia aurreratu bat daramazu eskumuturrean, zure osasuna eta segurtasuna bermatzeko sortua.

**Teknologia seguru eta eroso, zure ondoan beti.**